

## Santa Agenda

**Joxean Agirre**

**H**agiografoak bi gauzatan datoz bat, neska etxe onekoa zen, Cataniaiko nobleziaren alaba, eta edertasun itsugarria zuen. Zehaztapenik ez dute ematen, baina elizetako irudiak ikustera, Monica Bellucci, Maria Grazia eta abarren leinukoa izan zitekeen, edertasun italiar bat, oparoa eta betea. Neskak, alabaina, akats bat zuen, kristaua zen. Gobernadoreak ezkontzeko eskaintza egin zion (Sizilia erromatarren mende zegoen hirugarren mendean) eta gajoak larrutik ordaindu zuen eman zion ukoa, tortura izugarriak jasan ondoren hil baitzen.

Krimen horren atzean indarkeria matxista dago, baina indarkeria politikoa ere suma daiteke eta badago jazarpen ideologikoa ere, erlijioa hasita baitzegoen garai

horretan eta izango baitzen Erdi Aro luzean zehar ideologiaren ardatz, gaurko demokrazia deituetan zuzenbidea den bezalaxe.

Zertzelada bitxi bat dago istorio honetan, neskak jasan zituen tortura mota lazgarri eta ugariatik (hagiografiak benetan dira sentsazionalistak) bat gelditu da jendearen memorian, bularrak moztu zizkitenekoa. European barrena zabaldu zen santaren izena. Euskal Herrian bakarrik hamabosten bat irudi edo margolan badi-tu Santa Agendak (Xabier Unanue zestoarra ari da kontu horiek aztertzen) eta horietako askotan eszena morboso bera agertzen da: torturatzaile bat ari zaio tenaza erraldoi batzuekin bularrak moztzen. Emakumearen bularrekiko fijazioa non-bait berezkoa dute gizonezkoek.

Neuri santa honengandik gehien gustatzen zaidana bere lanerako grina da. Stakhanovista petoa da. Antzuolan garatxoak sendatzen ditu, beste hainbat lekutan bularreko gaitzak, Zamoran Ageda izenekoei agintea ematen die gaurko egunez hainbat herritan, beste herri batzuetan emakume ezkonduen kofradiak biltzen dira haren izenean, gazteek eta ez hain gazteek kantatu egiten diote Euskal Herrian. Edozertarako balio du. Nik ez nekien baina bularreko minak ez ezik, gizonezkoen isilpeko min eta ezintasunak sendatzeko ere balio du, dirudienez, Jose Mari Esparzak bildu zuen jotak dioena egia bada. Berruetakoa da alea: «*A Sant'Agueda tengo d'ir/Que le tengo devoción/ Pá que me cure las tetas/ ¡y a mi marido el tetón!*». •

## Sexu santua

**S**exurik ez ezkontideen artean eta bikote egonkorretan (azken iraultza) salbu... Sexua giltzarrapopean, alua, bularrak, zakila, uzkia, ferekak... Pentsamendu lizunak bekatu!

Belaunaldiz belaunaldi iltzatutako heziketatik erditutakoak gara eta nago oraindik ere prejuizioen korapilo estuetatik askatzeke gaudela. Zer esanik ez apezak. Pentsamendu zikinen bekatuak garbitzeko penitentzia bide, flajelazioa latigoz joz bizkarra garretan odoleztu arte... Baina sotanadun ala gabe guztiok gara pertsona sexudunak eta sexu grinak barru mugak irakiten dizkigun bakoitzean talka eragiten digu aurreiritziekin.

Kenduta Ama Teresa Kalkutakoarekiko edo senideen eta lagun hurkoen artean

senti daitekeena, ez dut sinesten sexurik gabeko maitasunean, ezta aingeruen sexuan ere.

Sexua haragizkoa da, gordinki ala maitasunez ziprztinduta liteke goza, eta hainbesteko indarra du espiritu santua bera ere zeruetaraino altxa dezakeela. Agian horregatik inoiz ez digute harri-durarik sortu sotana betiko albo batera utzi eta molde guztietako harreman osora entregatu diren apaizek, arre eta emanera... Gainontzekoek sinesmenen eta elizaren hierarkiaren eraginpetik barne beroaldiak kanporatzen dituzte, bakarriketan gehienek, hartu-eman borondatezkoetan batzuek, baina badira bortxazkoetara biziitzen diren sotana altxa arinak ere.

Kontua da bizitzaren ibilian milaka adjektibodun paletatik koloreztatzen dugula izaera eta, pertsona gisa ezberdinak osatzen bagara ere, sexuaren garrak guztioi dizkigula barruak pizten, sotana eraman ala ez.

Norberak asmatu behar du prejuizioei aurre egin eta barne beroaldiei irtenbidea ematen inor bortxaz hartu gabe. Zuzenekoa edo birtuala, jolas erotikoak ez du mugarik, f(laj)elazioa edo/eta eme zein har eman saioa... Nago, halere, bortxa plazeraren osagai duela zenbaitek, sotanadun ala ez, eta hori dutxa hotzarekin ez dela sendatzen.

Harriturik nauka mojen eskuetan eman diren bortxazko sexu harremanen kontakizun beltzik entzun ez izanak... •

**Xabier Mikel  
Errekondo**